

BASKEPENSIONES 60 GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Aurreikuspen-plan honek errenta finkoan eta, %60 arte, errenta aldakorrean inbertitzen du. Inbertitzaile-profil kontserbadorea duten pertsonentzat pentsatua da, Diruzaintza-planekoak bezalako arrisku gabeko inbertsioekin lor daitezkeenak baino errentagarritasun handiagoak lortu nahi dituztenentzat, errenta aldakorrarekiko espezio mugatuaren bidez.

2018/11/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%-3,71	%-7,53	%-8,67	%-8,67	%-0,44	%0,82	%3,47

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
%-8,67	%6,53	%1,43	%0,67	%4,84	%12,79	%7,68

2018/11/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%6,79
Lurrunkortasun 3 urte**	%7,11

**Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	243.570.196,24
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



HILEKO IRUZKINA


Azaroan zehar AEB eta Txinaren arteko merkataritza tentsioek eta interes tasa amerikarren bilakaerak inbertitzaileen arreta jaso dute. Hilabetea G20 bilera arreta guztia jarrita hasi da, bilera horretan merkataritza akordio bat itxi zezaketen aukera baitzegoen. Gainera, Estatu Batuek arreta guztia jaso dute agintaldiaren erdiko hauteskundeengatik. Hauteskunde horien emaitza gisa, Senatuan gehiengo errepublikarra mantendu da baina alderdi demokratik Kongresuaren kontrola lortu du. Bien bitartean, European, zalantzak berriz ere EB, Italia eta Erresuma Batuen arteko tentsio politikoetan zentratu dira, hazkunde europarra moteldu den ingurune batean. Italiari dagokionez, Alpeez haraindiko

herrialdeak aurkeztutako defizit helburuak eta hori aldatzeari uko egiteak Bruselak diziplina espediente bat irekitzea ekarri du. Horren aurrean, gobernu italiarrak ezusteko aldaketa eman du Europaren aurrean eta jakinarazi du herrialdearen zorra murrizteko eta aldi berean bere hazkundera sustatzeko bideak bilatzeko asmoa duela. Brexitari dagokionez, Mayk eta Europar Batasunak Irteteko Akordioa ixtea eta EB zein Erresuma Batuen arteko etorkizuneko erlazioei buruzko Deklarazio Politikoa pauso berri bat izan dira banantzeko prozesuan. Halere, hitzarmen hori abenduaren 11n Britainiar Parlamentuan onartu beharrik ziurgabetasuna areagotu du, zeren alderdi


laboristak hitzarmenari uko egin diezaioke eta Theresa Mayren alderdi kontserbadorearen barne zatiketa handia eragin dezake. Ziurgabetasun faktore horiei guztiei, azaroan beste bat gehitu zaie, petrolioaren prezioaren jaitsiera. Alderdi positiboa aurrerapenekin amaitu dute; izan ere, enpresa emaitzak onak izan dira eta FEDen mezua leundu egin da 2019an interes tasak igotzeari buruz. Europako burtsak, bestalde, gehienek beherakada txikiarekin itxi dute, hein batean, automobilgintza sektorearen portaera txarrarengatik eta horiek Cac eta Dax indizeak lastatu dituzte. Bien bitartean, interes

tasa amerikarren igoerak txikiak izateko aukerak, Europako tentsio politiko eta muga zergen gerrarekin batera, interes tasak jaisteko mugimenduak sortu ditu. Kredituari dagokionez, diferentzialak handitu direla ikusi dugu. Nahiz eta ziurgabetasun politikak eta Europako hazkunde moderatuagoak euroari kalte egin dioten, Erreserba Federa-laren presidentea, Jerome Powell, interes tasen igoeren inguruan askoz zurrugarroa agertu zenez, dolarren kotizazioa lastatu du dibisa nagusien aurrean. Horrela, euro/dolar kanbioak ia aldaketarik gabe itxi du hilabetea eta 1,13\$/ -ra kotizatu du.

Zorroaren banaketa



Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



BASKEPENSIONES 60 GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES 60 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneekin:**

[SIMULAGAILUA](#)

Kutxabank, SA
Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729
Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.

BASKEPENSIONES

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

BANAKAKO BGAEa

Etorkizunerako
planetan
liderrak.